

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3649

*1522/2022 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Iratxe Urreta Barallobre andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Epidemiologia Klinikoko Atal Sanitarioko buru aldi baterako, lau urte luzagarri.*

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentearen maiatzaren 7ko 488/2021 Ebazpenaren bitartez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Epidemiologia Klinikoko Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko uztailaren 7ko EHAA 133. zk., eta 2021eko uztailaren 16ko BOE 169 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Iratxe Urreta Barallobre andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Epidemiologia Klinikoko Atal Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iratxe Urreta Barallobre andrea izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Epidemiologia Klinikoko Atal Sanitarioko buru aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun 2022ko ekainaren 22tik aurrera izan zituen ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartuta aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESlari.

2022ko abuztuaren 22a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osa-  
kideztako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAA  
argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko ekainaren 24a.

Donostialdeko ESko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.